

Aberri Eguna heldu

TXILLARDEGI



HELDU da, bai, aurki, gure Aberri Askatua ospatzekotan asmatu eta finkatu zen eguna. Egundiratsua gure bihotzetan eta esperantzetan urte luzetan barrena.

Egun lardaskatua aspaldixko honetan. Aberri-Eguna Burujabetzen eguna baita, abertzaleon eguna; eta ez beste inorena. Ospaketa 'zabaldu' nahirik, alderdi espartolista eta anti-abertzaleak bildu nahi izan ditugu. PSOEko buruzagi ezagunak ekarri ditugu geuera; Aberri Eguna 'denen' eguna izan datekeelakoan.

Eta ospaketa lardaskatu dugu, mamigabatu, hondatu. Abertzale ez direnek ez baitute inoiz Euskal Herri Askatu eta Batua ospatu, Región Vasco-Navarra Zapaldu eta Zaitua baizik.

Eusko Jaurilaritza eta Gobierno Amejorado de Navarra delakoak, horretara, sortzez jaino dira jopu, eta jopu eta artorz hazi dira.

Aberri Eguna, heldu da berriro. Eta mementua ona da *sustraitara* itzultzeko; eta Euskal Herri Askatua helburutzat hartzeko. Gero, Burujabetza lortuta, euskal-herritarrek berek erabakiko dute zer egin, eta nola.

Ustelkeriak, espainiarakeriak, lotsagabeakeriak, feniziarakeriek oro gainezka egiten dutenean, guk hau esan behar dugu: «Askik! Kanpora hona ekarri gaituzten salduak!».

Eta urrats berri bat eman: *abertzaleok* bat eginez, abertzaletasuna gaitzeszen duten guzietan bizkar emanda.

Gutxiengo omen gara oraindik. Inoiz ez gara, halaz ere, orain bezain indartsu izan. Espainiar errejonialismotik irteari ari gara. Karlismoa nagusi izan da luzaz herri honetan; eta orain moztorturik dago. Iparraldean *'La France de Verdun'* izan da nagusi.

Orain gorantz dator abertzaletasuna. Amaitu egin behar azken urteetako *fartsa*.

Amets, zabalik begiak

RAMON LABAIEN



ALDERDI berri bat Nafarroan. Hunek zerbait berri ekarriko digun edo ez, horra hor kontua... Betidanik, Alderdi berri baten sortzeak, hor zegoen besteren baten

erruak konpontzea izaten du helburua. Hau eta aintzetan, norbaiter mintza leku egokia eskeintzea... Nafarroako sorkunde politikoren kasuan ba dirudi funtsezko dena ez dela haurra eta buru-beltz den edo kaxko-gorri, baizik Alli jauna izanen duen aita-besoetako edo ez. Gurasoak, apezta, bataioa, denak bihurtzen dira txiki galdera hunen erantzunari zai.

Argi zuen Alli jaunak ETBn azaldu zenean, hiru probintzien eta Nafarroaren arteko haru-emanak zirela gai, horrelakotan erabakiak xuxen-xuxenki herriarenak direla eta ez behin eta berriro oztogorri izan diren alderdienak. Eta egoki litzakeela alderdikeriak txikituz, herriari hitza bihurtzea, azken hitza herriarena izan behar den kasu berezietan. Edo beste ikuspegitik begiratuta, Alli jaunak proposatzen duena Nafarroan erreferendun baten antolaztea ez ote den.

Ekonomian batetik, eta hor gero eta ugariagoak dire Nafarroako enpresariak, begiradaka Lakua eskeintzen dituen erreztasuneri. Euskal Herria hain txiki denez eta alde bateko eta besteko interesak, ber-barak, zentzu gutxi benetan garesti diren egituren bikoizteak. Kultur erregitatean bestetik eta bereziki. Bada Euskal Herrian nihork ukatu ez lezakeen kultur batasun bat, euskeran finkatua.

Gauza izanez, nolako itxurarekin, ekonomia eta kultur errealtate diranerik azal posibilitate batar bat emaiten zaien... Estatu zentzuzko urteua. Ba dugu nun amets egin ongi zabalik begiak.

HEMEROTEKA

● EL MUNDO

Amando, maitatuz

Arabako alderdi ez-nazionalistek ezin eraman dute euskalduntze politika. Badute eskubidea. Aita Santua bera ere ez bada ausartzen abortuari buruz duen dotrina dogma bihurtzera, zentzuga-bea litzateke ezin hutseginkotzat jotzea gure euskarari buruzko dotrina.

(...)PSE-EE, PP eta UAK, Arabako Batzar Nagusietan gehiengo izateaz gain arrazoa ere izan nahian baitabilizta, ponentzia bat antolatuta zuten euskararen ezarpena-



DANZIGER / LOS ANGELES TIMES SYNDICATE

ren datuak berrikusteko. Pentsatu zuten ezen abilezia aukeratu gero datuen orea puntu-puntu jarriko zien sukaldaria, gaur egungo eus-

kalduntze plana irri-arra batean milikatuko zutela.

Ez dut esango janak gaizki egin dienik, bai baitute politikoei fama egunean apo bat

gutxienez irenstekoa, baina gauzek ere ez dute egoskor fama txikiagoa. Zerbait erakutsi badu Tabula V-ren zoriorenko ikerketak, hauxe erakutsi du: ez zegoela zertan sei milioi pezetza gastatu, aurretik ere bagenekiena baieztatzeko.

Besterik balirudike ere, politikan arazoa ez dira datuak, baizik eta haiek in zer egin behar dugun. Ez du hainbeste axola zer dagoen, baizik zer nahi dugun izatea, nola jarriko garen ados horretan, eta nola nahi dugun lortu. Eta etorkizuna egiteko modua ez da iragana habatzeko argumentuak bilatzea. Ibiliz ibiliz egiten da, eta euskararen kasuan, maitatuz. Hortaz, ekin.

MARIANO FERRER

ZUZENDARIARI

Bihotzean min dut

Zarauztarra naiz, 1914an jaioa, eta aldaketa haundiak ezagutu ditut Zarautzen: 1930 aldean gaur Nafarroa kalea dena eraikitzeke sortu ziren eztabaidak, eta bertako terreno jauntxoek kexak; Mendilauta eta itsasertzeko palazio eta etxe ederren desagertzea; alde zaharreko arrantzaletan etxe polit haren botatzea eta abar, eta abar. Eta horregatik guztiagatik, gure Lizardik zioen bezala, «bihotzean min dut».

Baina azkenaldi honetan, 1979tik aurrera hain zuzen, Zarautzek egindako aldaketa eta aurrerapena ikusita tristurak alde batera utzi eta pozik nuen bihotza.

Eta orain, aspaldidanik zarauztarren ametsa izan den itsasertzeko Pasealekua egitera doazela, nire poz hori haunditu egin da, ez bainuen use nik ikusi ahal izango nuenik. Hasiera behintzat ikusi dut, eta amaiera ere ikustea espero dut.

Pozik nago, baina harriturik ere bai, palazio eta etxe eder haiek bota zituztenean txintik ere esan ez zuten orain Marina Kafetegia bota delako atara duten zaratagatik.

Harriturik eta mindurik, zenbaitzuk azken hamasei urteotan izan ditugun al-

kateen izen ona zikintzeko egiten ari diren ahaleginak ikusita. «Bihotzean min dut» berriz ere.

Bihotzean mina, baina itxaropena ere bai, herritarrek ez garelako inozoak eta jakingo dugulako leialtasuna eta jatorritasuna non dauden bereizten.

Laster izango da hori. Adi egon!

JESUS MAKAZAGA FORURIA

Zarautz (Gipuzkoak)

Gartzelan nongoen eta...

«Jesusen nekaldi, heriotza eta biztueran kristauok gure arreta biziki jartzen dugun gara honetan, gure herriko presoen sufrimenduan eta errebindikapen oihua entzuten dugu». Honela mintzo zaigu Euskal Herriko Kristau Elkarte eta Apaiz koordinakundeak, apirilaren 2an, Arantzazun, egingo den presoan aldeko ospakizuna iragarri zabalduko mezua.

Presoen egoera eta sufrimendua isilarazteko egin ohi diren ahaleginak, gure herriak nozitzen dituen egoera zuzengabeak batetik eta zapalduen errebeldia eta

pobrearen zokoratzea bestetik ezkatuzko ahalegin zitalak baino ez dira.

Honela azaltzen du Xabier Sanchez Erauzkinek, gartzelan idatzitako *'La cuenta de los pasos'* liburuan, presoek ezarritako isilatasuna: «Porque nuestro mundo está repleto de cárceles porque se adivinan —no se ven— las sombras de miles de presos me siento solidario en la distancia de vosotros, hermanos del mundo del silencio».

Jesusen erreinaren eraikuntza herriaren historian txertatuta baino ezin dela ulertu eta gauzatu sinetsirik, beste behin Jesusen mezuari arreta jarri nahi diogu: Presoen askapena aldarrikatzea igorri nau.

Garizumako gure ospakizunak errito hutsak eta hotzak baino zerbait gehiago izan daitezten Jesusen beraren balioztapena jarri nahi genuke bizitzaren eta ospakizunaren ardatz: Gartzelan nongoen eta ikusera etorri zineten. Izan ere, nire sendirik txikien hauetako edozeini egin zeniotena, neuri egin zenidaten.

JON ETXEBARRIA

MARTIN ORBE

(EHko Apaiz Koordinakundeokak)

GAIA JARRITA



Nafarroako Bertsolari Txapelketa

Txapela honek elkartzten ditu joko eta jolasa, Euskal Herrian horrela dator bertsogintza bere kasa. Nahiz batzutan irabazteko estualdi txarra pasa, entzuleentzat izan dadila zoriorenko amasa.

LONTXO ABURUZA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



ODJ: IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarie: INAKI URIA

Zuzendaria: MARTELO OTAMENDI

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Publizitate: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Egoitze nagusia: Gudarien etorbidea, z/g/ 20140 Andoain
 ☎ 30 02 22 / Erredakzio faxa: 30 02 55 / Publizitate faxa: 30 07 07

Arabak: San Antonio, 20-1 ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13 esk. / (Iratzi dorrea) / 31011 Iruña
 ☎ 17 80 7879 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zabalburu Enparantza, 2-1 ezker. / 48003 Bilbo
 ☎ 410 40 46 / Faxa: 410 37 15

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecau 14, 1 / 503 Posta
 kuttaila, / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11